

ALOKABIDE Eusko Jaurlaritzaren sozietate publiko instrumentala da, errentamenduaren bidez kolektibo behartsuenei etxebizitza-beharren estaldura bermatze aldera zerbitzuak eskaintzeko, modu koordinatuan Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailarekin eta EAEn inplikaturako beste eragile publiko eta pribatu batzuekin, iraunkortasun-irizpideei jarraituz.

ALOKABIDEREN Zuzendaritzak jendaurrean adierazi nahi du ingurumenarekiko konpromisoa. Honako hauek dira konpromiso horiek:

JARDUKETA-PRINTZIOAK

- ❖ Ingurumenaren arloan gure jardueran aplikagarriak diren **lege-baldintza** guztiak betetzen ditugu, baita sinatutako beste akordio batzuetatik edo gure erakundeak parte hartzen duen hirugarrenekiko lankidetzeta-proiektuetatik eratorritako beste baldintza batzuk ere.
- ❖ Enpresa publiko gisa dugun egitekoa betetzeko, ingurumenaren, **sentsibilizazioaren** eta hobekuntzaren **sustatzaileak** izan nahi dugu, baita gure langileen eta interes-taldeen artean (bereziki enpresa hornitzaileetan eta gure bezero eta erabiltzaileetan) ingurumen-praktika jasagarriak sartzearen sustatzaile ere.
- ❖ Aktiboki laguntzen dugu **ingurumena babesten**, printzipio hauek aplikatuta: kutsaduraren prebentzioa, baliabideen kontsumo arduratsu eta jasagarria, klima-aldaketa arintzea eta hartara egokitzea, eta gure jardueraren, produktuen eta zerbitzuen eraginaren aurrean bioaniztasuna babestea.
- ❖ Gure politika korporatiboaren eta bikaintasun-printzipioaren oinarri gisa, gure ingurumen-kudeaketan **etengabeko hobekuntza** bilatzen dugu, eta, horretarako, adierazleak ezarri eta gure ingurumen-helburuak berrikusi eta hobetzen ditugu, gure ingurumenaren kudeaketa-sistemaren bidez.
- ❖ Ingurumen-arloan hobekuntzarako eta jardunbide egokietarako iturri garrantzitsuenetako batr **ikaskuntza partekatua eta berrikuntza** da, tokiko eta nazioarteko proiektuetan parte hartuz gauzatzen duguna. Horri esker, gainera, alor horretako aurrerapenen zaintza proaktiboa egin dezakegu, hobetzeko aukeren iturri gisa.

Beraz, **ingurumenaren kudeaketa-sistema** bat daukagu, gure jarduera eta bulego guztietan ezarria eta ziurtatua, zeinetan ingurumen-aldiera eta jorratzen ditugun hiru alor handietako jarduketak gehitu ditugun: proiektuak, obrak eta ALOKABIDEn bulegoak.

Gure ingurumen-lana xehatu eta jendaurrean jartzen dugu erakundearen webgunearen gardentasun-atarian eskuragarri dagoen informazioaren bitartez.